

1. Deialdia

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Arkitektura Goi Eskola Teknikoak (AGET-UPV/EHU, aurrerantzean) *Landartean: ingurune naturalAREKIN LANEAN* mikrokredentziala eskaintzen du. AGET-UPV/EHUrentzat, estrategikoa da Euskal Herriko arkitektoak hirien birnaturalizazio prozesuetarako formakuntzan eta espezializazioan sustatzea. Deialdi honen bidez, mikrokredentzialaren matrikulan diru-laguntza eman nahi zaie Euskal Herriko Arkitekto Elkargoratuiei.

2. Onuradunak

Diru-laguntza hauek Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialean elkargoraturiko arkitekto bizkaitar, gipuzkoar, arabar eta nafarrentzat da.

3. Erabaki organoa

Mikrokredentzialaren zuzendariek (Mikel Azkona Uribek eta Ula Iruretagoiena Busturiak) jasotako eskariak bilduko ditu eta zozketa burutuko du 4.puntuaren arabera. Probintziaren batean 2 eskari baino gehiago jasoko balira, zozketa Appsorteo aplikazioaren bidez egingo da. Prozesuaren fede eta bermea zuzendariek emango dute.

4. Adjudikazio irizpideak

Diru-laguntza eskaera egiteko epean aurkeztutakoen artean zozketa egingo da.

5. Zenbatekoa eta gauzatzeko modua

Diru-laguntza mikrokredentzialaren matrikularen erdia ordaintzeko beka izango da, 85 euroko diru laguntzarekin bekadun bakoitzarako. Denera 8 beka emango dira.

Bizkaian elkargoraturiko arkitektoentzat bi beka emango dira.

Araban elkargoraturiko arkitektoentzat bi beka emango dira.

Nafarroan elkargoraturiko arkitektoentzat bi beka emango dira.

Gipuzkoan elkargoraturiko arkitektoentzat bi beka emango dira.

6. Eskariak aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira deialdi argitaratzen den egunetik hasita, **2026eko apirilaren 15 arte**, biak barne, posta elektronikoko bat helbide honetara bidaliz: aget.landartean@ehu.eus, eskatzailearen izen-abizenak, NAN zenbakia, telefono zenbakia eta kontakturako posta elektronikokoaren helbidea.

Eskaerak jaso ondoren, adjudikaziodunen zerrenda argitaratuko du ikastegiak eta onoradunei jakinaraziko zaie.

7. Adjudikazioa

AGET-UPV/EHUK argitaratuko du adjudikaziodunen izen-zerrenda bat eta banan-banan jakinaraziko zaie erabakia eskatzaileei, eskaeran eman duten helbide elektronikoaren bidez 2026eko apirilaren 17an.

Arkitektoak emailera erantzun beharko du diru-laguntza onartzen dela berresteko eta mikrokredentzialaren [web](#)ean matrikula burutu beharko du apirilaren 22 arte.

Behin bekaren onuradunak diren emaila jasotakoan, beka ordaintzeko, Arkitektura Eskolako Administrazioan dokumentazio hau aurkeztu beharko da aget.administratzailea@ehu.eus helbidera, honakoa atxikituz:

- Matrikularen frogagiria eta ordainagiria
- Hirugarrenen fitxa beteta (emailaz igorriko zaie esleitutakoei)
- Ordainketa egingo den kontuaren banku-titulartasunaren ziurtagiria
- NANaren fotokopia

8. Onuradunen araubidea

Dirulaguntza hau jasoko duten arkitektoak konpromisoa hartuko dute mikrokredentziala egiteko.

9. Deialdi honen aurkako errekurtsua

Deialdi honen aurka, aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioke errektoreari, hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, modu berean kontatzen hasita.

Donostia, 2026ko apirilaren 6a

Mikel Azkona eta Ula Iruretagoiena
Landartean: ingurune naturalarekin lanean mikrokredentzialaren zuzendariak